HIZKUNTZA BATEN IKASKUNTZA PROZESUARI BURUZKO LANDA LANA. SISTEMA INFORMATIKO ADIMENDUN BATEN OINARRIA

A. Andueza, A. Díaz de Ilarraza, M. Maritxalar, J. Martirena, I. Pikabea

e-mail: jipmaanm@si.ehu.es

Lengoaia eta Sistema Informatikoak saila
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
ILAZKI euskaltegia

LABURPENA

Txosten honen helburu nagusiena da sistema informatiko adimendun baten oinarria izango den landa lanaren azalpena egitea. Landa lana hizkuntza baten ikaskuntza prozesuari buruzkoa izango da; kontretuki, ikaslearen tartehizkuntzaren azterketan zentratuko gara.

Lan esperimentala ikerkuntza proiektu baten barruan kokatzen denez, lehenengo, proiektua laburki komentatuko dugu, ondoren, lan esperimentalaren hasierako helburuak eta lan-plana azaltzeari ekingo diogu, eta, azkenik, betetako helburuak eta lan-plana ere aipatuko ditugu. Honen ondoren, azterketa egin deneko euskaltegiaren azalpena; landa lanean jarraitutako metodologia (bileren maiztasuna, irizpideak...) eta proiektuaren bukaeran hipotesien egiaztapenerako egindako froga-azterketa azalduko dugu. Azalpen orokor honen ondoren, aspektu zehatzagoak tratatuko ditugu txostenean: lan esperimentalerako aukeratutako egitura linguistikoak; ariketen zerrenda; egitura desbideratuen arrazoien bilketa eta hauen kudeaketa; ikasle bakoitzari buruzko txostena; talde bakoitzari buruzko perfila eta, azkenik, ondorioak eta lanaren jarraipena.